



ARAUDIA

SUNBILLAKO III. MENDI DUATLOIA (2026)

1. DATA ETA LEKUA: Sunbillako III. Mendi duatloia 2026ko apirilaren 11an burutuko da, arratsaldeko 16:00etan. Irteera eta helmuga Sunbillako plazan izango dira, elizaren ondoan.

2. IBILBIDEA: Proba, inguruko mendietan eta herrigunean zehar izango da. Lehenengo sektoreak (KORRIKA) 6,50km izango du luze eta 300mts-ko desnibel positiboa. Bigarrenak (BTT) aldiz 16km eta 800mts-ko desnibel positiboa gutxi gora-behera. Proba bukatzeko gehieneko denbora 3 ordukoa izango da. Eguraldi txarraren ondorioz, antolakuntzak ibilbidea alda dezake edo proba bertan behera utzi. Azken honen kasuan poltsak banatuko dira baina ez da dirurik itzuliko.

3. IZEN EMATEAK: Apirilak 5 bitarte internetez (www.kirolprobak.com). Dortsalen bat libre geratuz gero, egunean bertan izen emateko aukera egongo da. Gehieneko parte-hartzaileen kopurua: 150 kirolari. Internet bitartez, 25€ ordainduko dute bakarkako kirolariek eta 35€ bikotekakoek. Egunean bertan, 30€ eta 45€ balioko du inskripzioak hurrenez hurren. Proban soilik 16 urtetik gorakoek parte hartzen ahalko dute. Inskripzioarekin, kirolari bakoitzak parte-hartzailearen poltsa jasoko du eta zozketa desberdinetan parte hartzeko eskubidea.

4. IZEN EMATEAREN BAJA: Garrantzitsua: Azken astean, inskripzioan baja emateko aginduren bat jasoz gero, ez da izen emateko dirua itzuliko.

5. DORTSAL BANAKETA: Dorsalak Sunbillako plazan banatuko dira proba egunean eguerdiko 14:00tatik 15:00tara.

6. ASEGURUA: Antolakuntzak, parte-hartzaile bakoitzari aseguria egingo dio eta erantzunkizun zibileko aseguria izango du. Gainera BAZTAN-BIDASOA-ko ambulanzia zerbitzua izango. Momentu jakin batean antolakuntzako edo ambulanziazko kide batek parte-hartzaileari lasterketan jarraitzea uzten ez badio, bakoitzaren ardura izango da lasterketan jarraitu izana, bere egoera fisikoa zein den jakinta.

7. SEÑALIZAZIOA: Ibilbidea, anoa gunek eta boxeak behar bezela seinalizatuta egongo dira kartel eta zintekin. Bidegurutze gehienetan, antolakuntzako norbait egongo da badaezpada ere.



8.KONTROLAK: Parte hartzaile guztiek dortsala ikusteko moduan eraman beharko dute (korrikalariak aurrekaldean eta txirrindulariek bizikletan eta bizkarrean). Ibilbideko 2 lekutan kontrol guneak egongo dira denborak hartzeko eta hauetatik igarotzea beharrezkoa izango da sailkapenean azaltzeko.

9.ANOAGUNEAK: 2 anoagune izango dira lasterketan zehar (1 sektore bakoitzerako). Bertan: ura, gominalak eta edari energetikoak egongo dira. Gainera, lasterketa bukatzerakoan luntx txiki bat egongo da helmuga inguruan.

10.SAILKAPENA: Sailkapena argitaratuta, 30 minutu izango dira edozein erreklamazio egiteko. Behin denbora hori pasata, sailkapenak ofizialtzat joko dira.

11. SARIAK: Sailkapen desberdinak egongo dira, nagusienak hauek izanik:

1. Mutila/neska bakarka 2. Mutila/neska bakarka 3. Mutila/neska bakarka

1. Bikotea 2. Bikotea 3. Bikotea

Horiez gain, antolakuntzak beste sailkapen batzuk egin ditzazke.

Sariak antolakuntzak zehaztuko ditu.

12.INGURUMENA: Ingurumena zaindu eta errespetatzearren, ondakinak baimendutako lekuan bakarrik bota daitezke. Arau hau apurtzeak, kirolariaren kaleratzea dakar.

13.DUTXAK ETA KONTSIGNA: Kontsigna eliz atarian izango da, plaza ondoan eta dutxak frontoian eta igerilekuan.

14.ERANTZUNKIZUNA: Parte-hartzaileak errespetatu eta baten batek miña hartzen badu, laguntzen geratzea derrigorrezko araua da. Antolakuntza ez da arduragabekeria baten ondorioz gertatuko istripu baten kargu egingo eta ezta ibilbidetik kanpo gertatu bada. Galdutako objektu pertsonalen kargu ere ez da egingo. Horretarako, kontsigna zerbitzua egongo da eskura.

15. IRUDI ESKUBIDEA: Parte hartzaile guztiek, lasterketan zehar ateratako argazkiak Interneten eta sare sozial desberdinetan jartzeko baimena ematen dio antolakuntzari.

16. ARAUDIAREN ONESPENA: Parte hartzaile guztiek, araudi hau onartzen dute proban parte hartu ahal izateko.



KOLORE GORRIA: BOX ZONA / ZONA BOXES

KOLORE URDINA: IRTEERA ETA HELMUGA

KOLORE BERDEA: GIZONEZKOEN DUTXAK

KOLORE LARANJA: EMAKUMEZKOEN DUTXAK